

ASTOA, TXAKURRA, KATUA, OILARRA ETA ARITOA

Muxikako José Etxebarriak kontatuta 1924an

Etxe baten astoa, egon ei zen zaharra, ezertarako gauza ere ez zena, eta morroiek esan zioten ugazabari:

- Ezta gauza eta hil bihar asto hau alperrik jaten du-eta.

Astoak jakin zuenean, etxetik irten eta aurrera joan eta joan egin zuen.

Txakur bat aurkitu zuen. Ondokoa esan zion astoak:

- Zer egiten duzu hor adausi egin barik?

- Bihar hilko naute, zaharra naizelako, eta gogorik barik nago honela –erantzun astoak.

- Etor hadi nirekin -esan zion txakurrak.

Joan eta joan eta joan egin ziren aurrera bidean euren kontuak esanez, eta heldu ei ziren etxe baten ondora. Bertan, katua egon ei zen lehio baten alaru larriekin txilioka.

Eta esaten diote asto-txakurrak katuari:

- Zergatik zaude hain estu?

- Bada usabandreak hil egin gura nau gaur, txito bat harrapatu dudalako, lapurra naizela-eta.

- Gu ere horrelakoxe aitzakiarekin gabiltza halan, eta hil baino hobe da. Etor zaitetz gurekin –erantzun astoak eta txakurrak.

Joan ziren bada oso urrun hirurak batera.

Eguerdiko hamabiak izan ei ziren, eta bidean bardapean egon ei zen oilar bat kukurrukurik ere egin barik. Mira egin da badoaz asto-katu-txakurrak oilarrarengana ia zer zuen itaundutera. Eta hirurek galdetzen diote oilarrari:

- Zer duzu hor dardapean kukurrukurik egin barik egoteko ordu honetan?

- Zer edukiko dut bada, bihar ordu honetan lapikoan egon behar dut eta! –erantzun oilarrak.

- Etor gurekin, hor baino hobeto oraindik aurrera ibiltzea-eta –erantzun hirurek.

Joan ziren aurrera bidean, eta aurkitu zuten aharia ez beerik ez jaten egiten ez zuena. Eta diote eurek elkarrari:

- Gutariko bat da. Zeozer esango diogu?

- Zer duzu jan ere ez egiteko horko seluabelarra gozoa ere? – galdetu zioten asto-txakur-katuak.
- Lehen zergatik ekarri naute ni ona, loditzeko edo? Bada gaur zortzi gure jabearen alaba zaharrena ezkontzen da eta hil egingo naute bodan jateko –erantzun aritoak.
- Hemendik etxetik alde egin behar duzu, gu bezala, hil ez zaitezten beste hirurek erantzun.
- Baina, nora joan gaurkolako egunean besteren batek hartuko nau eta burua apurtzera eramango nau, eta? –aritoak esan.
- Etorri gurekin –besteek erantzun.

Joan ziren bada denak aurrera urrun, joan eta joan gaueko hamabiak inguru artean. Ordu horretan argia ikusi zuten lapur-etxe baten leihoan. Argia zegoen lekura joateko gogoia agertu zitzairen. Etxe hortara heldu zirenerako txakurrak adausika hasi zen. Beste guztiak ostenduta egon ziren, arittoa izan ezik beste guztiak. Honek ateari topetakoak ematen zizkion sendo: eman eta eman. Barruko lapurrek ikaratu egin ziren azkenerako, eta beste lapur-talde bat zelakoan, ostendu egin ziren guztiak. Baina aritoak, topeka-topeka, akaburako atea apurtu egin zuen. Eta denak sartu ziren barrura. Orduan, astoak, sudurreko lurrunarekin argia amatatu zuen, eta guztiak para ziren, euren ustez, lekurik onenetan: katua su ondoan, oilarra tximinian, txakurra ate ostean, arittoa eskailerapean, astoa kortako atean. Denak isil-isilik egon ziren.

Baina lapurrek jakin gura zuten zertzuek izan ziren harek zaratak. Eta sortean bota zuten nor joan ezkaratzera. Handik eta ordubete ingurura lapur bat ikusten da su ondora zuzen-zuzen joaten. Han katua ukitu zuen. Honek erpeka egin zion. Zutundu zen lapurra, eta oilaskoak txarpa begian sartu zion. Handik badoa irteten, eta txakurrak upelako haginkadak eman zizkion. Badoa eskailera ondotik eta topekada piloa, euretatik bat tripan. Badoa kortara. Hango ateetan astoak ematen dizkio ostikada bi. Behean zuzen luze, gehiago ez altxatzeko!

Lapur hori besteengana joan egin zenean, besteak ez ziren jaitsi, eta honek bost patadiok jan zuten haiek utzi zuten afaria.

Joxe Miel Barandiaran

Obras Completas Tomo II

Eusko-Folklore

Editorial La Gran Enciclopedia Vasca

Bilbao, 1973